Antolatzaileak:

OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO ANTZERKIZALEAK

SOINUENEA
Herri Musikaren Txokoa

ABARAXKA
OIARTZUNGO UDAL LUDOTEKA

1545
Argitaletxea

Laguntzaileak:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte



# HAURKULTUR ZIKLOAK

Haur eta gazteentzat 2024-2025 ikasturteko programazioa Landetxen.

-

2025eko
**urtarrila, otsaila eta martxoa bitarteko**
programazioa.

# AURKEZPENA




2024 eta 2025 ikasturtean zehar Oiartzungo udalak, Soinuenea Fundazioa, Abaraxka Ludotekak eta Oiartzungo Antzerki Taldeak haur eta gaztetxoentzat propio sortutako programazioaren neguko saioak aurkezten dizkizuegu. Urtarrilaren 11ean **"Erraldoi erraldoiak"** emanaldia berriz ikusteko aukera izan da, otsailean **"Butterfly effect"** antzezlana eta martxoan bateratutako programazio honetan parte hartuko duen 1545 argitaletxeak antolatutako ipuin kontaketa. Hiru emanldiak Landetxen antolatuko dira guztien sarrerak prezio bera izanik 5,00 €. Sarrerak erosteko edo gonbidapenak lortzeko ohiko bideak erabili ahal izango dira: Landetxeko takila edo udaletxeko "Sarrerak erosi" atari birtualean.

Filma




## ROBOTIA

2025-01-03 | 17:00tan | Landetxen

Androideek mendean hartutako mundu batean, neska batek futbolean jokatzearekin amets egiten du, familiak debekatu dion arren. Lagunek haren nahia betetzen lagunduko diote, eta elkarrekin, futbol-zelai barruan zein kanpoan egiteko gai direna erakutsiko diete guztiei.

Oiartzungo erraldoi txikiak



## ERALDOI ERRALDOIAK IKUSKIZUNA

2025-01-12 | 17:00etan | Landetxen

Joan den ekainaren 8an landetxen aurkeztutako "Erraldoi erraldoiak" ikuskizuna taularatuko dugu berriz, orduan bezala herriko hainbat eragilek parte hartuko dute: Erraldoi txikien konpartsako kideak, Ibargain Musika Eskolako eta HM eskolako irakasle zein ikasleak, haukin batera narrazioan Karmele Mitxelena eta Errege Belda bere akordeoiakin. Urte betean bigarren aldiz 2023an argitaratutako "Erraldoi erraldoiak" ipuinean oinarritutako ikuskizunaz gozatzeko akuera izango dugu.

Astrolabium Teatroa




## BUTTERFLY EFFECT ANTZEZLANA

2025-02-08 | 18:00etan | Landetxen

Munduan biraka dabiltzan bi ferianteek kontatuko digute antzezlan honetan gizakiaren eboluzioa. Bi feriante hauek, Papillon eta Clemont, zinea eramaten zuten herriz herri kamera puskatzen zaien arte. Ikuskizuna aurrera eraman nahian proiektatu behar zuten filma haiek berek kontatzea erabakitzen dute. Maletan dakarten elementu ximpleenekin historian zehar garrantzitsuak izan diren gertakariak kontatuko dituzte. Suaren sormenetik hasi eta itsasoa, airea eta espazioa konkistatzeaz gain gaur egungo teknologia berriak ekarriko dizkigute. Aldi berean, gizakiak historian zehar irabazi dituen eskubideen inguruko ausnarketara salto egingo dute beti tximeleta efektuak izan duen garrantzia kontuan izanik.
Bi ferianteez gain OFF ahots bat ere egongo da beraiekin harremanduko dena. Ahots honek gidatu eta lagunduko ditu istoria kontatzen.

Yolanda Arrieta



## IPUIN-KONTAKETA

2025-03-22 | 11:00 eta 12:00etan | Udalbatza aretoan

Yolanda Arrieta idazle eta ipuin-kontalaria izango dugu 1545 argitaletxeak antolatutako 'Literatura Plazara' ekimenaren barruan.

. **11:00etan** 4 eta 7 urte arteko haurrentzat ipuin-kontaketa saioa eskainiko du, eta, besteak beste, "Dortokaren ametsa" album ilustratu argitaratu berria aurkeztuko die hurbiltzen direnei.
. **12:00etan,** aldiz, 8 eta 11 urte arteko gaztetxoentzat ipuin kontaketa eta idazketa tailerra eskainiko ditu, "Migranteak" hitzik gabeko album ilustratutik abiatuta.